



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko martxoaren 22a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Familia ugarietako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretua. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere konpromisoak bete ditzan Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Plana abian jartzeari dagokionez. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta inpartzialtasun handienaz joka dezan Nafarroako konkistaren V. mendeurrenaren ospakizunean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondare osoaren inentarioa egin dezan. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nekazaritzako inbertsioetarako laguntza-lerroei eta Moderna Proiektuaren zigilua emateari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (8. or.).
- Galdera, martxoaren 14an Madrilen Espainiako Errege Akademiak euskarari eginiko omenaldian parte hartu ez izanari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (9. or.).
- Galdera, Etxepare sarien sustapenaren eta argitaratzearen gainean hartutako erabakiari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (9. or.).
- Galdera, Espainiako Itzuliaren etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egindako zuzemenei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (10. or.).
- Galdera, Europar Kontseiluan Nafarroak izanzen duen Espainiaren ordezkariari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (11. or.).

- Galdera, Navas de Tolosako Batailaren Ibilbideko Herrien Elkartearen sortzeari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (11. or.).
- Galdera, “Pilavesa 2012” izeneko proiektuaren egoerari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Foton enpresak ekoizpen-jarduera hasteko beharrezkoak diren hitzarmenak sinatzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Inceisa, Unitec, Europa S.A., Makal eta Fotón enpresekin sinatutako hitzarmenei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda (14. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretua.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bete dezan Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretua, hizkuntza murgilketako jardueretarako hobari bereziei dagokienez.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak urtero egiten du deialdia, Nafarroako ikastetxeetako ikasleek atzerriko hizkuntzako murgilketa ikastaroak egin ahal izan ditzaten.

2011/2012 ikastorako, Hezkuntza Departamentuak lau programa eskaini ditu 2012ko martxoan, Foru Komunitateko ikastetxeetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek ingelesa eta frantsesa ikasi ahal izan ditzaten.

Familia Ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretuko II. kapituluko 4. artikuluko 2. idatz-zatiak ezartzen du Lehen Hezkuntzan eta Bigarrenean, eta hizkuntza murgilketako jardueretarako, hobari bereziak izanen direla familia ugarientzat. Halere, 2011/2012 ikasturterako deitutako murgilketa ikastaroetako bakar batean ere ez dira hobari horiek jaso, prezio bera eskatzen zaielako ikasle guztiei.

Nafarroako Gobernuak ingelesezko murgilketa ikastaroetarako deialdia ere egin du, Batxilergoko lehen mailako ikasleak Estatu Batuetara joan daitezen 2012ko udan. Programa, Batxilergoko ikasleei zuzendua denez gero, ez da sartzen familia ugariek hobariak jaso ahal izate aldera 38/2010 Foru Dekretuan ezarritakoaren barruan. Halere, Talde Popularrak uste du aintzat hartu beharko litzatekeela familia ugariek hobari bereziak jaso ahal izatea; izan ere, Gobernuak garatutako hizkuntza murgilketako programak dira horiek.

Horregatik guztiagatik, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Hezkuntza Departamentuak bete dezan, 2011-2012 ikasturterako atzeraeraginez, Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretuan ezarritakoa, eta, hartara, hobari bereziak eman diezazkien atzerriko hizkuntzako murgilketa ikastaroetarako hautatutako ikasleei, baldin eta familia ugarietakoak badira.

2. Nafarroako Gobernuak Familia ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretuko II. kapituluko 4. artikuluko 2. idatz-zatia alda dezan –Lehen Hezkuntzan eta Bigarrean, eta hizkuntza murgilketako jardueretarako, hoberi bere-

ziak izanen direla familia ugarietarako–, Batxilergoa ere sartuz ondorio horietarako.

Iruñean, 2012ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere konpromisoak bete ditzan Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Plana abian jartzeari dagokionez.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere konpromisoak bete ditzan Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Plana abian jartzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2009tik aitzina, Parlamentuak Gobernuaren jardueraren jarraipena egin du Estatuarekiko negoziazioei dagokienez, Nafarroarako Landa Garapen Iraungarrirako buruzko Plana taxutu eta

abian jartze aldera. 2010eko erdialdera arte, Gobernuak adierazten zuen epe egokietan ari zela aurrera egiten honako hauetan: eremuen zehaztapena, plan berekiak, ordainsariak, eta abar. Baieztapen haien egiantza alde batera utzita, Estatuaren plana indarrean den bigarren urte honetan –eta, hortaz, Nafarroak planaren bidez kofinantzatutako funtsetara atxiki ahal izateko bigarren urte honetan– plana ez da aurrera eramana.

Errealitate horrek luzatu baizik ez du egiten gure landa lurraldearen zati handi baten lurraldesorekaren ondoriozko egoera larria, eta, horren ondorioz, lurralde horietako biztanleen aukeradesberdintasuna.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere konpromisoak bete ditzan, bai eta Parlamentu honek aho batez hartutako erabakiak ere, abian jartze aldera Landa Garapen Iraungarrirako buruzko Plana, halako moduan non, Estatuaren 2010etik 2014ra bitarteko Planarekin lankidetzan, kofinantzaketa eta Nafarroaren lurralde-orekarako eta -garapenerako behar diren finantza-funtzen ekartzea ahalbidetuko baitira.

Iruñean, 2012ko martxoaren 12an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta inpartzialtasun handienaz joka dezan Nafarroako konkistaren V. mendeurrenaren ospakizunean.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ahalik eta inpartzialtasun handienaz joka dezan Nafarroako konkistaren V. mendeurrenaren ospakizunean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Iragan legegintzaldian –zehazki, 2008ko azaroan– Nafarroa Bairen mozio bat eztabaidatu zen Legebiltzar honetan, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatu baitzen 2012ko Batzorde Antolatzailean sar ditzan Nafarroako Parlamentuak hautatutako bost ordezkari (parlamentu-talde bakoitzetik bat).

Nafarroako Gobernuak 2008ko urriaren 6an hartutako erabaki baten karietara aurkeztu zen mozio hori, erabaki haren bidez 2012ko Batzorde Antolatzailearen osaketa aldatu baitzen. Gobernuaren erabaki hartan ageri zen nortzuek osatuko zuten batzorde antolatzailea. Erabakia ikusita, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak pentsatu zuen beharrezkoa zela batzorde horretan sentsibiltate politiko, sozial eta kultural guztiak egotea; izan ere, irizpide ezberdinak daude gai horri buruz dagoen ikuskera zeharo uniboko, norabide bakoitzeko eta partikularrari dagokionez, eta hori dela-eta eskatu zuen parlamentu-talde bakoitzeko ordezkari bat egon zedin.

Mozioa aztertu zuen batzordean, UPN eta SPN parlamentu-taldeek, CDN foru parlamentariaren elkartearekin batera, in voce zuzenketa bat aurkeztu zuten, jatorrizko mozioa ordezteko, eta mozioa proposatu zuenak zuzenketa onartu zenez gero, aho batez onetsi zen ondotik hitzez hitz ageri den erabakia:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako egungo historiografiaren joera-aniztasunaren isla izan daitezen batzorde antolatzailean aurreikusitako 5 pertsona prestigiodunak.”

Geroago, 2010eko azaroan, PSNk beste mozio bat aurkeztu zuen erregistroan. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen alderdi akademiko eta zientifikoei lehentasuna eman diezaien Nafarroaren konkistaren bosgarren mendeurrenaren oroitzapen-ekitaldian.

Mozio hori ere aho batez onetsi zen. Hona mozio horren erabaki proposamena:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaur egun dauden korrante historiografikoen arteko topaketa bat susta dezan eta alderdi akademiko eta zientifikoei lehentasuna eman diezaien Nafarroaren konkistaren bosgarren mendeurrenaren oroitzapen-ekitaldian.

2. Nafarroako Parlamentuak, gertakari haiek erkidegoaren bilakaera historikoan duten garrantziaren jakitun, Nafarroako Gobernua premiatzen du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen eta irakasleen esku jar ditzan eskola-materialak, batzuei eta besteei gertakari haiek hobeki ezagutzen laguntzeko eta bizitako errealitate historikoari ahal den guztian doitutako interpretazio bat egiten laguntzeko.”

Zoritxarrez, oraindik ere ez da bete ez hasiera batean Nafarroa Baik aurkeztutako mozioaren edukia ez SPN taldeak aurkeztutako mozioarena.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2008an eta 2010ean aurkeztutako mozioetako erabaki proposamenei dagokionez hartutako akordioak bete ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du inpartzialtasunik handiena izan dezan Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrenaren ospakizunetan, auzi horrek sentsibiltate ezberdinak eragiten baititu nafarren artean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 13an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondare osoaren inbentarioa egin dezan.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondare osoaren inbentarioa egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken urteotan gatazka sortu da Nafarroan, jakin izan denean Eliza Katolikoak, bere elizbarrutiaren bitartez, ustez herriarenak diren 1087 ondatsun immatrikulatu dituela Jabetzaren Erregistroan, horretarako 1946ko otsailaren 8ko Hipoteka Legeko 206. eta 207. artikulua baliatuta.

Jose María Aznarren gobernuaren lege dekretu baten bitartez –irailaren 4ko 1867/1998 Errege Dekretua, 1998ko irailaren 29ko Estatu Aldizkari Ofiziala–, kendu egin zen, 1998an, Hipoteka Erregelamenduko 5. artikulua, zeinak salbuetsi egiten baitzuen gurtza katolikoko tenpluen inskripzioa. Horren ondorioz heldu zen gune horien immatrikulazio masiboa –katedralak, elizak, basilikak–, bai eta herriek ordura arte eraiki, erosi eta mantentutako beste toki asko eta askotarikorena ere, inoren izenean inskribatu gabe zeudenak ordura arte: parrokia-etxeak, atariak, hilerriak eta bestelako ondasunak, hala nola etxeak, finkak, mendiak, bazkalekuak, baratzeak, frontoi bat, eta abar.

Hipoteka Legeko 206. artikulua, zeinak Elizbarrutiaren ziurtagiri bidez immatrikulatzeko pribilegioa ematen baitio Elizari, konstituziokontakotasun-susmopean dago, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren zenbait epai erabat logikoren ondotik; izan ere, Hipoteka Legea 1946an onetsi zen, Estatu bete-betean konfesionala eta frankista zenean. Horregatik eman zitzaizkion Elizari immatrikulazioak egiteko eman zitzaizkion abantaila ederrak. Alegia, araudi indardunaren justifikazioan eta horren jatorrian dagoena da Espainiako Estatu konfesionala zela titulu inskribagarririk gabeko eliza-finkak immatrikulatzeari buruzko araudia onetsi zenean.

1978ko Konstituzioak Elizaren eta Estatuaren arteko banaketa ezarri zuenez gero –Espainiako Konstituzioko 16.3 artikulua ezartzen duenez, Estatuak ez du bere eginen ezein erlijio–, are eztabaidagarriagoa da Elizbarrutiari Estatuaren einkizunak esleitzea eta fede-emaile publiko

bihurtzea, haren izenean mota orotako ondasunak immatrikulatzeko.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok honako erabaki proposamena aurkeztu dugu, eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Eliza Katolikoak Nafarroan egindako immatrikulazioek ukitutako ondasun guztien inbentarioa egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du beharrezkoak diren tresnak taxutu

ditzan, 1946ko otsailaren 8ko Hipoteka Legeko 206. artikulua eta Hipoteka Erregelamenduko 304. artikulua indargabetzeko.

3. Nafarroako Gobernuak toki entitateen jabetzako ondarearen defentsa juridikoa egingen du, haien titulartasun publikoa agerikoa denean, baldin eta toki entitateek eskaria egiten badute.

Iruñean, 2012ko martxoaren 15ean

Foru parlamentariak: Patxi Leuza García, Víctor Rubio Martínez eta José Miguel Nuin Moreno

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nekazaritzako inbertsioetarako laguntza-lerroei eta Moderna Proiektuaren zigilua emateari buruzkoa.*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nekazaritzako inbertsioetarako laguntza-lerroei eta Moderna Proiektuaren zigilua emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean ahoz erantzun dezan:

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak kudeatzen ditu inbertsioetarako laguntza-lerro hauek: 720. programaren barruan eta "Nekazaritza-ustategien sustapena" proiektuaren barruan, "Nekazaritza-ustategien eraginkortasuna hobetzea. LGP" kontusaila; eta 750. programaren barruan, berriz, "Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntza. LGP LGENF"; "Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntza" eta "Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, inbertsioetarako (eskualde lagunduei buruzko araudi berria)" izeneko kontusailak.

Hona galdera:

1. Bateriaezina al da arestian aipatutako laguntza-lerro horietako bateko diru-laguntza lortzea eta "Moderna Proiektua" izeneko zigilua lortzeko eskabidea egitea eta, horrenbestez, Sodenak eta Europako Inbertsio Bankuak sinatutako hitzarmenaren esparruko finantzaketa?

2. Bateriaezintasunen bat al dago Europako Inbertsio Bankuarekiko hitzarmen horren eta Departamentuk kudeatutako gainontzeko diru-laguntzetako edozeinen artean?

Iruñean, 2012ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, martxoaren 14an Madrilen Espainiako Errege Akademiak euskarari eginiko omenaldian parte hartu ez izanari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, martxoaren 14an Madrilen Espainiako Errege Akademiak euskarari eginiko omenaldian parte hartu ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarreko araudiari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Martxoaren 14an RAEk euskarari omenaldia eskaini zion Madrilen.

Zer dela eta ez zen Nafarroako Gobernuak kideren bat joan omenaldi horretara?

Iruñean, 2012ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Etxepare sarien sustapenaren eta argitaratzearen gainean hartutako erabakiari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Etxepare sarien sustapenaren eta argitaratzearen gainean hartutako erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarreko araudiari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Hezkuntza Kontseilari José Iribas Sánchez de Boado jaunak erantzun dezan.

Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuek, Nafarroan literatura sari esanguratsu baten hutsunea zegoela ikusirik, eta, beraz, literatur lehiaketan alorlean erreferentzia izanen zen saria sortzeko xedearekin, Etxepare literatur sariak antolatu zituzten 2004an. Etxepare sariak haur, gazte eta helduentzako literatura saritu zuten bi ediziotan.

2006tik aurrera, Etxepare haurrentzako albumak sortzeko beka bihurtu zen, euskaraz sortutako albumen produkzioa sustatzeko helburuarekin. Izan ere, euskaraz argitaratzen diren album gehienak itzulpenak dira, eta ez euskaraz sortuak. Euskarazko album ilustratuen sorrera bultzatzen duten beka edo lehiaketak urriak dira, eta, alde horretatik, ekimen berritzailea dugu hau.

2009az geroztik, Etxepare beka izateari utzi eta sari bilakatu da.

Euskarabideak sariketa honetan laguntza eman izan du, sustapenerako alde batetik eta argitaratzeko bestetik. 2012 honetan ordea, data honetan ez dakigu zein izanen den gobernuaren jarrera Etxepare sariarekiko; izan ere, sari-emate-

ko prentsa deialdira ez baita Euskarabideko ordezkariarik agertu.

Zein erabaki hartu du Euskarabideak, hau da, Nafarroako Gobernuak, Etxepare sarien sustape-

na eta argitaratzea sustatzearekiko?

Iruñean, 2012ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Espainiako Itzuliaren etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egindako zuzemenei buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Espainiako Itzuliaren etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egindako zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Lehendakariatzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer zuzemen egin ditu Espainiako Txirindulari Itzuliko etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko? Zenbat diru lortu du horrela orain arte?

Iruñean, 2012ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Europar Kontseiluan Nafarroak izanen duen Espainiaren ordezkaritzari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Europar Kontseiluan Nafarroak izanen duen Espainiaren ordezkaritzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak eledun eta Kultura, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak informazioa igorri dio Talde Popularrari, Parlamentuan egindako eskariari erantzunez, Nafarroak Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluan Espainia ordezkatu duen seihilekoan Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak eta Hezkuntzako kontseilariak izanen duten lan-egutegiari buruz. Behin informazioa jasota, Talde Popularrak ondoko galdera idatzia aurkezten du:

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak eta Hezkuntzako kontseilariak gain, aurreikusita al dago beste kontseilariaren bat joatea Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseilura, Nafarroak Espainiaren ordezkaritza duen seihileko honetan? Baiezkoan, aurreikusitako lan-egutegia eskatzen dut.

Iruñean, 2012ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Navas de Tolosako Batailaren Ibilbideko Herrien Elkartearen sortzeari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Navas de Tolosako Batailaren Ibilbideko Herrien Elkartearen sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Amaya Zarranz Errea andreak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, galdera hau egin du, Kulturako, kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Ciudad Realeko bost herri eta Jaengo hiruk Navas de Tolosako Batailaren Ibilbideko Herrien Elkartearen sortu dute, bataila horren oroitza eta helburu kultural eta turistikoekin. Hori dela eta, honakoa galdetzen dugu:

Nafarroako Gobernuak ba al du Navas de Tolosako Batailaren Ibilbideko Herrien Elkartearen sortu izanaren berri? Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak ba al du ekimen horrekin bat egiteko asmorik?

Iruñean, 2012ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, “Pilavesa 2012” izeneko proiektuaren egoerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “Pilavesa 2012” izeneko proiektuaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

“Pilavesa 202” izeneko proiektua dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

Zertan da proiektu hori, galdera hau aurkeztu den egunean?

Iruñean, 2012ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Foton enpresak ekoizpen-jarduera hasteko beharrezkoak diren hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Foton enpresak ekoizpen-jarduera hasteko beharrezkoak diren hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Jakin nahi dut ea zenbat denbora gelditzen den, Nafarroako Gobernuaren estimazioen arabera, Fotón enpresaren produkzio-jarduerarako beharrezkoak diren hitzarmenak sinatzeko.

Iruñean, 2012ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Inceisa, Unitec, Europa S.A., Makal eta Fotón enprekin sinatutako hitzarmenei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Inceisa, Unitec, Europa S.A., Makal eta Fotón enprekin sinatutako hitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

1. Nafarroako Gobernuak, edo bere enpresa publikoetakoren batek, zenbat eta zein akordio, itun, eta abar sinatu ditu Inceisa, Unitec Europa S.A., Makal eta Fotón enprekin? Zertan dautza horiek? Akordio, itun edo dena delako bakoitzaren kopia eskatzen dut.

2. Enpresa horiekiko akordio, itun edo dena delako horiei dagokienez, zertan da horien betetzea?

Iruñean, 2012ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda

Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera –deialdia bertako Lehendakariaren 2012ko urtarrilaren 30eko ebazpenaz onetsi zen–, behin deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, eta erreklamazioak aurkezteko epea bukatuak errekamaziorik aurkeztu gabe, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

Onartuak:

Aisa Pérez de Ciriza, Raúl Emilio

Arza Laurenz, José
Beorlegui Usoz, Peio
Gutiérrez González, Víctor
Larumbe Erro, Guillermo
Pueyo Resano, Francisco
Zaborras Aguado, Ana Isabel

Baztertuak:

Lezaun Echauri, Iosu Eder

Deialdiko 2.1 oinarrian ezarritako baldintza ez betetzeagatik.

Bigarrena. Xedatzea, deialdiko 5. oinarriko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, epaimahai kalifikatzailea eratu beharko dela izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondoko bost eguneko epean.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas
